


EUSKAL HERRIKO

APAIZ KOORDINAKUNDEAREN OINARRIAK

+++++

OINARRI IDEOLOGIKOAK

+ + + + + + + + + +



1.- BATERATZAILEAREN partaide garen apaizok, ikusten dugu ezen gure Herria etengabeko borroka batetan murgildua bizi dela aspaldidanik : alde batetik, bere ezaugarri soziokultural eta lurraldezkoa berrezkurtzearen eta finkatzearen aldeko borroka dena, bai halaber bere destina berak libreki erabakitzeko eskubidearena ere ; eta bestetik, gizarte eta gisa eredu global berri baten aldeko den borroka.

2.- Borroka hau lagungarri gertatu da, sektore herri-tarrek sufritzen duten egoera objetiboaren kontzientzi biziago eta argiago batez jabetzeko : esplotazio eta marjinazio egoera langile herri den aldetik (nekazari, arrantzale, industri saileko ...) ; zapaldu eta menperatu egoera Euskal Herri den aldetik.

3.- Borroka hau, erakunde klasezko eta politikoak eta gure Herriaren sektore geroz eta zabalagoak (emakumeak, gazteria, etorkinak, langabetuak ...) bereganatuz joan den arabera, eta bizitzaren alderdi geroz eta zabala-

goak (herritar mugimendu, euskara, ekologia, amnistia, euskal kultura, borroka antinuklearra, feminismoa, kontzientzi objektua, giza eskubideak ...) abarkatuz joan den neurrian, esplotazioaren eta zapalketaren izakera orokorraz jabetuz joan izan gara, baita herriak borrokan defenditzen duen gizon eta gizarte aukeraren osotasunezko izakeraz ere.

4.- Herri prozesu hau gizarte eta nazio askapenerako prozesu benetakotzat hartzen dugu. Uste dugu ezen, gaurko egoeran, ez direla librakuntza edo prozesu berezi bi, prozesu eta borroka bakar baten funtsezko alderdi bi baizik.

5.- Giza prozesu orok bezala, honek ere baditu bere iluntasunak, geldialdiak eta atzerakadak, baita desbideketak ere. Hortan murgildua senditzen dugu ordea geure burua, jakinik ezen prozesu hortatik kanpo ezin daitekeela inor gera.

6.- Kontzientzi jabetze hau finkatzen da eta premiazko bihurtzen, herriaren edo herri klaseen egoera eta prozesuaren aurrean fedetik postura hartzen dugunean. Esplotazioan, marjinazioan eta menderapenetan bekatua ageri da, giza egoismoa, anaitasuna eta Jainkoarekiko batasuna haustea. (I Joa. 3, 10). Herriak beregaindu, gizon berri bezala birsortze da, Jainko Erreinuaren ibiliari bideak irekitzen dizkio eta onartzen du.

(Jer. 22, 16)



7.- Ez dugu borroka berezi bakoitza, herriaren edo beronen sailen ekintza konkretu bakoitza, fedetik sakralizatu eta zuzenesteko asmorik. Guregan eta herriarengan bekatua ari da, inoiz adimendua iluntzen eta bihotza ixten duena. (Rom, 7, 15-19). Baina askazio oso baten aldeko ahalegin globalak Espirituaren arnasa lagun izango duenaren segurantzak ematen digu adore (Lc. 4, 18-19 y Gal. 5, 1. y 13). Segurantzak honek ordea ez gaitu libratzen kasu bakoitzean egin behar dugun bereizte ahaleginetik eta ausart prophetiko salaketa batetik. (Fil. 1, 9-11 y Mt. 16, 3).



8.- Baina aldi berean, esplotatu, zapaldu eta baztertuen aldeko aukera garbi batetara garamatza (Lc. 7, 20-23 y Lc. 14, 13. y 22). Aukera honek mundu guziko pobre eta ukatu guzietara elkartasunera zabaltzen gaitu, eta batera, hemen eta orain, klase eta Herri aukera batetan zehazten da guretzat ; aukera bat, beraz, konposagai bikoitz bat duena, soziala eta nazionala.

9.- Aukera honen garapenak eginkizun baten aurrean jartzten gaitu herri osoarekin batera, konpromezu argitsuari, sormenari eta erabaki gabeko problemek soluzioak emateko gauza izango diren pauso politikoaren bilaketari

zabalik egongo den eginkizun baten aurrean.

10.- Aukera honek, batez ere, herrian eta haren prozesuan sartzeraz bultzatzen gaitu. (Fil 2, 5-8). Horrek guretzat esan nahi du, proletarizazio eta euskalduntze pertsonalaren dinamika batetan sartzea, herriaren borroka lehiatsu eta kritikoki gureganatzen ditugun neurrian, baita haren interes eta helburuak, haren gizona eta gizartearekiko proiektu globala, haren ideologia iraultzailea, haren analisi tresneria, e.a. ere.

11.- Hala dugu adierazten bere askazioaren alde borrokatzen den herriarenganako gure konbertitzean, gure konbertitze iraunkoarra Jainkoagana, Erreinura, eta honen eskakizunetara. (Mt. 6, 33 = Mc. 1, 15).

12.- Hala ulertzen eta bizi nahi dugu Jesukristoganako geure leialtasuna, dimentsio guztietan, Jesusen ikasle eta jarraitzaile izatearen geure kondizioa (Mc. 9, 36 eta Lc. 9, 23-26). Oinarrizko aukera hori, nahi dugu izan dadin, fede bibentzi leku iraunkor bat, esperientzia espiritualezkoa, teologi gogoetazkoa. Hauxe izango da konpromezuari fronte emateko beharrezko den kritizitatearen eta libertatearen garantiarik onena. Gure ezarpena herri askapen prozesuan, barneko ixiltasunez, Hitzari erne egonaz eta Aitarekiko elkarrizketaz etengabe garbitua, argitua eta indartua izan behar du.



13.- Herriaren aldeko aukera eta haren prozesuan sartzzea nahi dugu izan dadin ebanjelizatze leku iraunkor bat. Eta alderantziz, ohartzen gara ohartu, ebanjelizatzea ez dela soilik gure apaiz lanik behinena, baizik eta, batez ere, herriarekin lotzeko modu berezi eta espezifikoa izan behar duela. (1 Cor. 1, 17-25. Evang. Nun. 14)



14.- Honek ebanjelizatze askatzaile bat eskatzen du (Lc. 4, 18 eta Hec. 3, 6). Hots, historian eragingo duen Berri Onaren iragarpen bat, prozesu liberatzaile eta haren projektua argitzen eta dinamizatzen lagunduko duena. Baina horrek eskatzen du, praktika askatzaile baten bihotzetik Ebanjelioa aurrez berrirakurtzea. (Evang. Nun. 33-35).

15.- Ebanjelizatze askatzaileak hitzaren eta keinuaren arteko sintesia egin nahi du, ekintzaren eta adierazpenaren artekoa. Mintzatzen den ekintza da eta egin da-gien hitza. Ebanjelizatze kapaz askatzen duenez gero eta askatzeko kapaz ebanjelizatzen baitu.

16.- Memento hontako eragozpenak eragozpen, Ebanjeliaren indar askatzailearengan dugun fedea baieztatzen dugu. Uste dugu ezen Ebanjelioa aportazio baliotsuena

dela prozesu askatzailearentzako, prozesu hori bere osotasunean harturik, sinesmendun eta sinesmen gabekoei protagonizatua ; hau da, prozesu horren osotasunezko izakerarentzako, nahiztaezko ekarpena da, Jainkoaren asmoaren arabera..Ebanjelioak gainera, gertagarri litezkeen absolutizazio eta idolatrien aurrean ernatzen gaitu, azken finean askazio eta libertaterako bidea ixten baitute (Lc. 22, 24-28).

17.- Uste dugu ezen herria Ebanjelioaren destinatari abantailatu dela, harekiko eskubidea duela, elkartasunean hartaz jabetzeko, bere hitzean, praktikan eta bizitza osoan hura adierazteko. Konprometatzen gara beraz, gure esku dagozkeen bide guziak bilatzera, Jainkoaren Hitza herri klaseei heldu dakien.


18.- Gure Euskal Herriaren erlijiotasuna iluntasunez eta kontraesanez nahastua egon da eta dago ; sarritan nahi izan da Herria bera erabiltzea erlijioaren bitartez. Horrengatik, gure Herrian "faktore erlijiosoa" ren zenbaterainokoa aztertu eta pisatzera konprometatzen gara, hor gorderik dagoen fede askatzailearen potentzial posible hori garatzen laguntzeko xedearekin.

19.- Arreta berezia jarriko dugu konpromezu borrokariak beregaintzen dituzten kristauen fedearen laguntzan, haien fede eta praxia elkarrizketa iraunkor eta elkar-



aberazkarrian lotu daitezzen ekintza sozio-politikoak ez dezaion sinesmen eta kontenplatio dimentsioari kalte egin.

20.- Ebanjelioak komunitatean egiten du deia (Hec. 2, 41-47 eta 4, 32-37). Herriaren baitan aldarrikatua izanik, komunitateak herri izaera bat lortzen du (1 Cor. 26-31). Baina komunitatearen herri izaera hori ez da batez ere estrakzio materialaren araberakoa, baizik eta Ebanjelioak inplikatzeko dituen aukerak norberégainduak diren intentsitate eta leialtasunaren araberakoa




hain zuzen. Hau da : solidaritatea esplotatu eta zapalduarekin, herriarekin, Kristoganako konbertsio bezala eta pobretasun eta anaitasunaren bibentzia bezala ; zerbitzua, Jesusi jarraitzea ; komunitateak berak beregaindu dezala dagokion ardura ebanjelizatzailea ; benetako korresponsabilitatea ; funtzio diferenteon onartzea ; Espirituan bizitzea ; penitentziazko jarrera berrazterketan eta kritikan, e.a.

21.- Baina komunitateak beren funtzio ebanjelizatzailearen arabera definitzen dira batez ere, zeinek herrian sartzea eta herriganako konpromezua inplikatzeko duen (Ev. Nun. 58).

22.- Gure xedea halarik ere, komunitate txikiak sortzea baino hurrunago doa. Komunitateok Euskal Eliza Herritarraren ernamin eta agintza dira guretzat. Eta Eliza hori da guretzat bere askazio sozial eta nazionalaren alde borrokatzen den Herriaren fedean oinarritzen dena ; bere Herriarekin bat egina, haren zerbitzuan dena eta Herriak bere etxea bezala senditua dena.

23.- Eliza Herritarra ez da komunitate txikien bilduma hutsa. Baldin herriak Ebanjelioaz jabetzeko eskubiderik badu, eta bizitzeko eta espresatzeko modu kolektiboak baditu, pentsatu beharko dugu badirela Eliza Herritarraren parte izateko moduak, -Herri denez- herriaren zenbait sektoreri dagozkionak eta hertsiki komunitario ez direnak. Bestela, Eliza Herritarra ez baina minorien, garbien eta kutsatugabeen Eliza egingo genuke, herriaren beraren errealitatearen kontra jarritz.

24.- Euskal Eliza Herritar baten ezaugarriak definitzerakoan, ez gaitez hurrunegi joan geure nahikundeek eta irudimenak bultzaturik. Haren prozesua gure gizarte osoarenari loturik denez gero, kontzientzi mailan eta konpromezuan aurrera doazen talde eta komunitateetan erreparatzen den izakera berrezkuratzen joatea lortu behar da ; bai halaber kristau herriaren -oro har-jarrerak, portaerak, balore eta nahikundeak. Hortik abiatuz, jarrai gintezke aurrerabidean,



25.- Eliza Herritarra ez da paraleloa. Ez da beste Eliza bat, baizik eta "bestearengandik" datorrena, esplotatua, zapaldua, baztertua, Elizan bere burua sarritan menpeko eta baztertu senditu duenarengandiko Eliza. Eliza honek, "bestearenak", konbertsio sakon batetara deitzen dio Eliza osoari ; aldi berean bere leialtasuna berraztertzen duelarik, zeren eta ez baita bere aukeraz justifikatua senditzen. Gure aukera, Eliza Ofizialari buruz, ez da fede aukera, soziologikoa da teologikoa baino lehen. Baieztazen dugu geure komunio eklesiala eta jerarkikoa, tentsio onuragarri bezala ulerturik, zeren eta komunioa lan amaitugabea da, dohai eskatologikoa, Kristorekiko gure komunioaren araberakoa, pobreekiko, bere askazioa lortu nahi duen herriarekiko : Jainko Erreinuaren zerbitzuan.

BATERATZAILEAREN HELBURU OROKORRAK ETA EKITEKO BIDEAK

Bateratzaileko apaizok hontara konprometatzen gara :

- 1.- HERRI ETA KLASE AUKERA GARBI ETA PRAKTIKO BIDETIK AURRERATZEN JOAN, ASKAPENERAKO EUSKAL BURRUKA HERRI-TARREAN AKTIBOKI PARTE HARTUAZ ETA BURRUKA HORI INDARTUAZ.

Horregatik :

- Gure sozio-kultural nortasunaren baiezpenari eta berreskupenari lagunduko diogu, eta lehenda-

bizi, geure buruak euskalduntzen ahaleginduko gara. Herriaren eta apaizen euskalduntzea eskatuko dugu eta maila guztietan gure kulturari bultzaz egingo diogu.

- Herriaren mugimenduan eta askapen prozesu osoan sartuko gara, gizarte eta gizon eredu berri bat sortzeko sahiatuaz. Honela izango gure bidea :

- - Mugimendu herritar guztiaren piztura eta indartzea (auzo elkarteak, ekologista eta anti-nuklear taldeak, amnistia, preso eta atzerri-ratuen aldeko taldeak, feministak, langabe-tuen elkarteak ...).
- - Baztertuei laguntza eginkorra (emigranteak, preso sozialak ...)
- - Herrien eta pertsonen eskubideen defentsa.
- - Erakunde eta modu errepresiboari kontrakotasuna.

- Gure Herriaren lurralde integrakuntzari laguntasuna emango diogu. Euskal Eliz Probintzia sortarazteko esigentzia berrituko.

2.- GURE HERRIAREN ASKAPEN PROZESUAREN AZTERKETA KRITIKO ETA IRAUNKORRA ETA, BERTAN ETA BERTATIK, SINESMEN IRAKURPENA EGIN.

Horregatik :

- Aurkesten zaigun gizarte ereduaren azterketa eta balorapen iraunkorra eginen.
- Sektore herritarren egoera objetiboarekin jabetuko.

- Herriaren prozesuan dauden desbideratze, atzerakada, geraldari eta zalantzagarritasunen (be-katuzko egoera) eta alderdi positiboen bereizgoa (Espirituaren indarra) egingo.

3.- GURE FEDEAREN BERFORMULAPEN IRAUNKORRA, ASKAPEN PROZESUAN SARTURIK DAUDEN BESTE FEDEDUNEKIN BATERA EGIN.

Gure ahaleginak linea hortatik joango dira :

- Askapen mugimendu herritarrean partaide izan daitezen, gure elizetara etortzen diren pertsonen norabidea eman.

- konpromezutik, sinismen bizipenaren eta ospakizunaren, teologiko hausnarketa eta bere arteko komunikazioa zuzendu. Indar askatzaile bezala otoitza eta gurutzea berraurkitu.

- Pertsona konprometituak kontuan edukirik, oinarriarekin herritar teologi hori laboratu.

- Konpromezu konkretutik hasita, zentsu askatzailez Ebanjelioa birrirakurri.

- Jesusen pertsona berreskuratu, bere bikoitz joeran : pobreen eta zapalduen aldeko aukeran eta kontenplatio dimentsioan.

- Gure Herrian "faktore erlijiosoak" dun irispidea, horren azterketa eta balorapena egin, eta bere barnean daraman sinismen askatzailearen indarra bilakatu.

- Ministeritza berriak sortzeko oinarriko indar iraultzaileak desblokeatu eta jaso eta indar

baliagarriak berreskuratu (oinarriko taldeak, kristau soilak, apaiz sekularrak ...).

- Laikoen funtzio ezberdinak eta erantzunkidetasun efektiboa girotu.

- Jendearen galdera biziei heldurik eta erantzuntzeko bideak iriki nahirik, katekumenatu bat eratu.

- Konpromezu militantea hartu duten kristauei beren sinesmenean lagundu.

Herrikoitasuna indartzeko katekesia, sakramentu eta otoitzaren norabidea egin.

4.- EUSKAL ELIZA HERRITAR BATEN JAIKIGARRIA ETA LEGAMIA IZAN, PROZESU ASKATZAILEAN KONPROMETITURIK DAUDEN BESTE ELIZA BATZUEKIN LAGUNKIDE.

Hauxe egiten sahiatuko gara :

Euskal diozesetako apaizen artean, oraingoz daudenen ondoan, hartuemanerako eta komunikatzeko modu berriei eragin.

- Erabide elkartutako guztiei bultzada eman, baita erabaki eta partaidetasunerako plataformei ere.

- Kristau elkarte txikiak sortarazi eta indartu.

- Kristau elkarte txikietan orain ez ez dauden pertsonekin, baina askapen prozesuan sarturik daudenekin, Euskal Eliza Herritarrean kide izateko moduak eta lokarriak ezarri.

-Klase nagusiek eta potere politikoek

bermatzen duten Elizaren azpiestruktura ekonomikoa, geroz eta gehiago mozten joan, eta sinismendunek autojestionatutako autofinantziaketa bultzatu.

- Nota baliagarri bezala Euskal Eliza Herritarra ezarri herriaren askapen prozesutik ateratzen diren jokabideak, seinaleak, jarrerak, baloreak eta aspirapen positiboak.

- Ez bere bizitzatik, bai herriaren errealitatetik Elizaren definitzioa asmatu.

- Kritikazko eta tentsiozko eliza eta jerarkiko elkartasuna geitu.

- Eliza mailan ere diren ekintza eta erakunde errepresiboen aurka burrukatu eta giza eskubiak defendatu.

- Elizaren atzerakadari kontrakotasuna egin.

- Askapen prozesuan konprometiturik dauden eliza mugimenduekin, batezbe Latinoamerikako apaiz bateratzaileekin, elkartasun, hartueman eta esperientzien elkartrukerako lokarriak jarri.

- Konpromezu sozio-politiko iraultzailearen iraunkortasuna babestu.

- Ekiteko bide guzti hauek bateratu.

* * * * *

ALTSASU (NAFARROA), 1.980 - EKAINA - 16

+++++